

TOKIKOM

2010eko urria | 97. zenbakia

aike!

txorierriko aldizkaria

Ongi etorri
teknologiara

AZARDA - EGITARADA



GUREA ARETOA
cinema



CAMPANELLA Y EL GRAN RESCATE
Luzbelena 10. 18.30h
Igorka 7. 18.30h

CARTAS A JULIETA


Luzbelena 6. 18.30h
Igorka 7. 18.30h



ASTORREY
Luzbelena 10. 18.30h
Igorka 7. 18.30h

COME BEZA, AMA

Luzbelena 12. 18.30h
Igorka 7. 18.30h



Joan Craxistano de Arriaga

Luzbelena 10. 18.30h
Igorka 7. 18.30h
Igorka 7. 18.30h



GUREA ARETOA
cinema

CINE GUREA

GUREA ARETOA



EGO, MI VILLANO FAVORITO

Luzbelena 20. 18.30h
Igorka 20. 18.30h



CONOCERÁS AL HOMBRE DE TUS SUEÑOS

Luzbelena 20. 18.30h
Igorka 20. 18.30h



DURMIENDO CON SU ENEMIGO

Luzbelena 20. 18.30h
Igorka 20. 18.30h
Igorka 20. 18.30h



AZAREN ARGIA

Luzbelena 22. 18.30h
Igorka 22. 18.30h



LA LEYENDA DE LOS SANTOS

Luzbelena 22. 18.30h
Igorka 22. 18.30h



Derio

Derio

CINE GUREA
Luzbelena 20. 18.30h
Igorka 20. 18.30h

Derio



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara
Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arre-
kikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika,
Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan
Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Berazategi, Jon Lega-
rreta, DAT Derioko argazki taldea, Bestorrene,
Lurdes Etzebarria, Ioritz Larrabeiti, Oihana Asto-
bieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki
Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000


Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen edo-
ta eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAILA
I. EUSKOJA I. EUSKOJA I. EUSKOJA I. EUSKOJA




diruz lagundutako aldizkaria



- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Beroa, hotza
- 12 Gurean izan da... Ez dok hiru biko teatroa
- 14 Gaztea eta... Oihane Ibarretxe
- 16 Ortu solidarioa
- 18 Etorkizuna hurbil dugu
- 22 Zamudioko San Martin jaiak
- 27 Mikel Zarate haur literatura saria
- 28 Txorierri ezagutu... Bestorrene baserrria
- 30 Elkartek... Lagun probazaleak
- 32 Baserri mundua... Uzta txikiagoa, baina goxoa
- 34 Aikorrizketan... Gure Txori Boisen
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda





IÑAKI BERAZATEGI
(Kazetaria)

EITB barrutik ezagutzen dugunok ez gara asko harritu ikustean nola hondoratu diren gure irati-telebista publikoaren entzule eta ikusle kopuruak azken hilabete hauetan, eta nola joan den progresiboki galduz gure gizarte-ingurunean hedabide erreferenzial gisa zuen balioa.

Erakundearen zuzendaritza-talde berriaren baldarkeria eta hain esaneko makurtzea Gasteizko Legebiltzarreko unionisten gehiengo parlamentario bidegabearen jarraibide politikoetara, lagungarri gertatu dira EITBk gal dezan ospea, baina hondatzea zetorrela iragartzen zuten zantzetako batzuk lehenagotik haute-

EITB

man zitezkeen, Andoni Ortuzar EAJren Bizkai Buru Batzarreko oraingo presidentea EITBko zuzendari nagusia zen garaitik, hain zuzen ere.

EAJren botere zirkuluetan egoteak aukera eman zion Ortuzarri EITBren Basurtuko egoitza berria bezain proiektu handinahi eta nekez irautekoetan sartzeko. Bizkaitar jeltkideen oraingo buruak ondo aprobetxatu zuen ego-kiera hori –eta dirua erabiltzeko aukera ia mugagabea–, paparreen kudeatzaile bikainaren domina jartzeko eta, karta txarrak etortzen hasi zirenean, EITBren aginte-zubia bertan batera utzita, politikaren salbatxalupara salto egiteko.

Horrela, bada, interregno aldi bat ireki zen, zeinaren barruan ekonomia-krisia etorri zen –hain kaltegarria izaten ari dena hedabideentzat– eta ez zen borondaterik eta botererik izan erabaki estrategikoak hartu behar zirenean. Hori guztia ordaina ekartzen hasi zen, honako forma hauek harturik: programazio errepikakorrak, ikusle-entzuleen kopuruak gelditzea edo jaistea, proiektu berririk ez izatea, etab. Eta ikus-entzunezko merkatuaren une garrantzitsu batean gertatu zen hori guztia, merkatua eral-

datze ikaragarri baten mende zegoenean (itzalaldi analogikoa, LTDren agerpena, ikusle-entzulegoaren zatiketa, internet bidezko irratietako telebista-kateak...).

Zuzendari nagusi berria, Alberto Surio, eta beronen zuzendaritza taldea etorri zirenean, gauzak okertzen hasi ziren. Ez zituzten ezagutzen ikus-entzunezko industriaren zirrituak, eta, kasu askotan, beharrezko gaitasun profesionala ere ez zuten. Beraz, elefante bat eltzetenda batean nola, halaxe sartu ziren kudeatzaile berriak EITBn, beren “identitate” obsesioak akuilatutik. Hortik aurrerakoa ezaguna da.

Oker dago uste duena dena erraz konponduko dela Gasteizen beste gehiengo parlamentario bat jarri eta EITBren buruan beste zuzendaritza talde bat ezarri, gaitasun handiagoko profesionalen osatua eta herrialdeko gehiengoaren sentiberatasunetik hurbilagoa. Euskal irati-telebista publikoaren sinesgarritasunak eta irudiak jasandako kaltea larriagoa da ikusle-entzuleen kopuruaren une jakin bateko galera baino. Oraingo dibortzio hau, alde batetik EITB taldeko hedabideak eta bestetik hura mantentzen laguntzen duen gizartea banantzen dituen, ez da erraz konpontzen diren horietakoa: haustura sakona da, arrastoa luzaro utziko duena.


Eskumuturreko magikoak?

Modan jarri dira eskumuturreko magikoak edo osasungarriak. Baina egia da produktu horren publizitatean esaten dena? Ez; iruzur hutsa baino ez da. Produktu horiek saltzen dituen enpresa batek horrela dio: “Eskumuturrekoak holograma bat du eta horren barruan maiztasun bat dago, gorputzaren energia-eremuari onurak ekartzen dizkiona, indarra eta oreka emanez”. Benetan harritzekoa! Mirarizko produktu guztiek badute komunean ezaugarri bat: zientziaren erabilpen maku-rra. Hala ere, ez gara zientzialariak izan be-



JON LEGARRETA
(Fisika Zientzietan doktorea)

har maiztasunaren kontzeptua ulertzeko, hori eguneroko terminoa baita: fenomeno periodiko bat denbora-unitatean errepikatzen den aldi-kopurua. Beraz, nola egon daiteke maiztasun bat holograma baten barruan? Argazkirik egin ahal zaio segundo bati? Graba dezaket kilometro pare bat disko gogor baten barruan? Maiztasuna neurtzeko unitatea da, eta berez ez da existitzen. Ondorioz, holograma horretan maiztasunik ez badago, zelan ekar diezazkioke oreka eta osasuna nire gorputzari? Eskumuturrekoa erosita duen baten batek hobeto sentitzen dela esango du. Eta egia izango da. Baina, eskumuturrekoarengatik baino, plazebo-efektua martxan jarri delako.



Mikologia jardunaldiak, Sondikan eta Zamudion

Azaroan, mikologiaren gaineko hainbat ekitaldi egingo dira Zamudion eta Sondikan. Horrela, hilaren 4an, arratsaldeko 7:30ean, hitzaldi bat egongo da Zamudio-torren, eta hurrengo egunean perretxiiko tailerrak izango dira Ludotekan. Arroeta mendi taldekoek irteera antolatu dute azaroaren 6rako. Irteera Cantharellus elkarteko kideekin batera egingo dute eta goizeko 8:30ean aterako dira Arroetaren egoitzatik. Batutako aleak arratsaldean sailka-

tuko dira eta hurrengo egunean erakusgai jarriko dituzte Zamudioko Azokan. Sondikoztarrak perretxiokotara joango dira azaroaren 20an. Izena azaroaren 2tik 8ra bitartean eman behar da liburutegian. Aleak sailkatu, eta azaroaren 21ean erakusketa egingo dute tren geltokiaren ondoko aparkalekuan. Besteak beste, umeei zuzendutako pintura lehiaketa, produktuen salmenta eta txakolinaren eta perretxioko dastatzea antolatu da egun horretarako.



Argazkia: Urrusti elkarte

250 lagun, Zamudioko III. Koadrilen Egunean

Koadrilen Eguna hirugarren aldiz antolatu dute aurten Zamudion, eta bertan 250 lagunek hartu dute parte. Ekitaldiak herriko koadrilen arteko harremana lantzea izan du helburu, eta horretarako, bazkaria antolatu zen. Ostein, sokatiran ibili ziren Zamudioko lagunak. Arratsaldea Ermutik etorritako fanfarre batek girotu zuen, eta jaia gaueko ordu txikietara arte luzatu zen. Antolatzaileak pozik azaldu dira, "eguraldia giroa bezain ederra izan zelako". Era berean, Koadrilen Egunaren hurrengo edizioan parte hartzeko gonbidapena zabaldu diete herritarrei. Beste alde batetik, eskertu dute herriko tabernek fanfarea ordaindu izana.

**SARRIKOI A
OGITLGA**

E. SARRIKOI

Produktuak
Ariketa
Hizlariak
I. liburua

Aikora, 2010. urria
Tel: 04 485 01 37
978 84 941 00 00

**LIBRO DE
SONIDOS
LINGÜÍSTICOS**

J. M. MARTÍN

Arteak, 2010. urria
Tel: 04 485 01 37
978 84 941 00 00

ASESORIA

L. J. MARTÍN

Arteak, 2010. urria
Tel: 04 485 01 37
978 84 941 00 00

Hamabost borroka-egun, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra

Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta Behargintzak eta udalek kanpain hau antolatu dute: "Txorierrin 15 egun borrokan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra: berdintasunaren eta indarkeriarik ezaren alde". Kanpainaren helburua da emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak agerian uztea eta salaketa plazaratzea, eskualdeko eragile guztien parte-hartze aktiboa bultzatuz. Hamabost egunean hainbat jarduera soziokultural egingo dira udalerrri guztietan.

Azaroaren 11n, egunean

–Kanpainari hasiera ematea.
–Lila koloreko puntuak banatzea, Derion eta Zamudion.
–Derioko ludotekan, 16:15ean: "Ama iza-tearen abentura" ikastaroa, Garbiñe Etxebarria psikologoaren eskutik. Hamar saio, egunetan.

Azaroaren 12an, barikuan

–Lezamako Kultura Aretoan, 20:00etan: *Modelo contrapublicitaria* antzezlan, Oihulari Klowen taldearen eskutik.

Azaroan 13an, zapatuan

–Sondikako Kultura Etxean, 20:00etan: *Rosas rojas* antzezlan, La papa taldearen eskutik.
–Doyan Derioko gimnasioan, 16:30ean: Emakumeentzako defentsa ikastaroa, A-

sier Rodriguezekin. Azaroaren 6an ere e-gongo da saio bat. Izena ematea, udale-txean.

Azaroaren 15ean, astelehenean

–Zamudiotorren, 19:00etan: "Eragin psikologikoa, genero-indarkeria jasaten duten emakumeengan" hitzaldia, Janire Estebanezekin.
–Sondikako Kultura Etxean, 18:00etan: Jolasen eta jostailuen gaineko hitzaldia.

Azaroaren 16an, martitzenean

–Sondikako Gaztetxean: Neskentzako sexualitate tailerrak.
–Azaroaren 17an, eguaztenean

–Uribarri Lezamako topalekuan, 19:00etan: Autoestimatu tailerrak. Tailerrak azaro-

aren 3an hasiko dira. Bederatzi saio izango dira, eguaztenetan.

–Derioko ludotekan, 16:15ean: "Ama iza-tearen abentura" ikastaroa, Garbiñe Etxebarria psikologoaren eskutik.

Azaroaren 18an, egunean


–Loiuko liburutegian, 18:00etan: Kontu-kantoi ipuin-kontalaria.

Azaroaren 19an, barikuan

–Lezamako Ludotekan, 18:00etan: "Hezki-detza lantzen, txikiekin. Lanbide desberdinak" ekimena.

–Lezamako Kultura Aretoan, 18:00etan: Jolasen eta jostailuen gaineko hitzaldia.

–Loiuko Gaztelekuan: Neskentzako sexualitate tailerra.



Txorierrin 15 egun borrokan
emakumeen aurkako indarkeriaren
kontra:

**BERDINTASUNAREN ETA
INDARKERIARIK EZAREN ALDE**

Partekatu
www.zamudilekudela.net/berdintasuna

Azaroaren 20an, zapatuan

–Lezamako Kultura Aretoan, 20:00etan:
Prest gaude antzezlan, Lakrikun taldearen
eskutik.

Azaroaren 22an, astelehenean

–Zamudiotorren, 19:00etan: “Eragin psiko-
logikoa, genero-indarkeria jasaten duten
emakumeen seme-alabengan” hitzaldia,
Itziar Gandiárek.

Azaroaren 23an, martitzenean

–Larrabbarri Derioko baserrian, 17:00etan:
 “Derio berdintasunaren alde, eta emaku-
 meen aurkako indarkeria errotik kentzen”
 mahai-ingurua, Garbiñe Mendizabal eta
 Maite Bolumbururekin.

–Sondikako Gaztetxean: Neskentzako sexualitate tailerrak.

–Sondikako Ludoteka In eta In, 17:00etan
eta 17:30ean: Kontukantoi ipuin-kontalaria.

Azaroaren 24an, equaztenean

–Zamudiotorren, 19:00etan: *Molestias clow-nicas* antzezlan, Oihulari Klown taldearen eskutik.

–Sondikako Ludotekan, 17:00etan: “Hezikidetza lantzen. Indarkeria eta bizikidetza” ekimena.



-Uribarri Lezamako topalekuan, 19:00etan: Autoestimutailerrak.

–Larrabetzun, 19:00etan: Berdintasunaren aldeko bertso-saioa, eta Kontakizun laburren Lehiaketaren sariak banatzea.

Azaroaren 25ean, equenean

–Udalerri guztietan: Manifestazioak, bilkurak...




–Loiuko Ludotekan, 17:30ean: “Hezkidetzaz lantzen. Indarkeria eta bizikidetzaz” ekimena.



Txorierriko lehenengo jostailu-denda

Gabonak hurbil-hurbil ditugu, eta aurren Olentzerok jostailuak Txorierriin bertan hartzeko aukera izango du. Izan ere, Ipuinak jostailu-denda zabaldu dute Derion, Artega eraikineko beheko solairuan. Hori Txorierriin dagoen jostailu-denda bakarra da eta han edozein motatako jostailuak eros daitezke: puzzleak, baloiak, motorrak, panpinak, mekanoak, liburuak, bideo-jokoak, moztorroak...

Dendan adin guztientzako jostailuak saltzen dituzte (jaioberrientzat, haurrentzat eta nerabeentzat), eta neskei zein mutilei daude zuzenduta.





Lanak, Garaioitza auzoan

Lezamako Udalak berritze lanei ekin die Garaioitza auzoan. Bestekak beste, hango espaloia zabalago egingo da eta argiaren sarea berrituko da. Horren haritik sei argi-puntu berri jarriko dira kalean, gune ilunik ez egoteko. Kalea estetikoki ere hobetuko dute, eta kutxatila egokituko dituzte.

Beharrek oztopo arkitektonikoak kendu eta espaloia irisgarriago egingo dute helburu. Horretarako, oinezkoentzako zebra-bideak eta mugikortasun seguruaren alde egiten duten bestelako elementuak jarriko dira. Lanek jarraipena emango diote Hilario Astorki plaza birmoldatzeko proiektuari, eta hiru hilabeteren buruan amaituta egotea espero da.

Lanetan 98.000 euro inbertituko dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harreman eta Herri Administrazioaren Sailak aurrekontuaren %60 jarriko du; eta gainontzekoa, Lezamako Udalak.


Babes ofizialeko etxebizitzak zozketatu dira Sondikan

Urriaren 14an babes ofizialeko 88 etxebizitza zozketatu ziren Sondikako Kultura Etxean. Etxebizitzak Sagarreta auzoan dabilta eraikitzen. Udalak hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta, horren bitartez, sondikoztarrek lehentasuna izan dute etxebizitza horietako bat eskuratzeko orduan. Gainera, Udalak baldintza berri bat ezarri du: titularretako batek, eta azken 15 urteak kontuan hartuta, gutxienez urtebetean egon behar zuen herrian errolatuta. Horrela, lanagatik, ikasketengatik edo abarreko arrazoiengatik epe batean kanpora joan behar izan dutenek ere zozketan parte hartzeko aukera izan dute.

Etxebizitzak herriko erdialdean kokatu dira: Goronda Gane ikastetxe eta Go-

ronda Beko kiroldegiaurrean. Han zazpi etxebizitza-bloke altxatuko dira eta bakoitzak etxabea, hiru solairu, garajea eta trastelekua izango ditu. Prezioak Eusko Jaurlaritzak onartutakoetara egokituko dira.

Orotara 101 etxebizitza eraikiko dira Sagarreta gunean. Hala ere, horietako 13 etxebizitzaren berariazko beharrak betetzera edo birkokatzeetara zuzenduko dira. Gainontzekoak irizpide hauek kontuan hartuta zozketatu dira: lau etxebizitza, elbarrituentzat (eskaera bi egon dira), 44 etxebizitza eskaera orain dela lau urte edo gehiago egin duten familientzat, 25 etxebizitza 25 urtetik 35 urtera bitarteko familientzat, eta 15 etxebizitza gainontzekoentzat.





Garitano eta Lekue, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

Urrian hasiera eman zaio Bizkaiko Bertsolari Txapelketari. Lehenengo kanporaketa Mungiako Olalde aretoan egin da, eta irabazlea Oihana Bartra izan da. Ortz Garitano Derioko bertsolaria ere sailkatu da txapelketarako. Derioztarrak urriaren 31n, Igorreko kiroldegian egingo den kanporaketan hartuko du parte. Saioa arratsaldeko 5:30ean izango da eta Garitanorekin batera hauek arituko dira: Eneko Abasolo, Beñat Vidal, Peio Ormazabal, Joanes Igeregi eta Miren Amuriza. Finalaurreko saioak azaroaren eta abendu-

an izango dira: azaroaren 21ean, Durangoko Landako Gunean; azaroaren 28an, Amorebieta-Etxanoko Zelaieta Zentroan; eta abenduaren 5ean, Gernika-Lumoko Jai Alai pilotalekuan. Saioak arratsaldeko 5:30ean egingo dira. Etxahun Lekue larrabetzuarra Durangoko finalaurreko saioan arituko da. Lekue zuzenean sailkatu da finalaurreko horretara, 2008. urtean Bizkaiko Txapelketaren finalista izan zelako. Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala abenduaren 18an, arratsaldeko 5:30ean, izango da BEC erakustazokan.

160 zamudioztarrek hartuko dute parte Balkoien Lehiaketan

Zamudioko Udalak Balkoi Apainduen Lehiaketa antolatu du bigarren aldiz, eta sobera bete ditu aurreikuspenak. Izan ere, ekimenean 160 auzokidek eman dute izena. Lehiaketan modalitate bi egongo dira: base-riak eta pisuak. Bakoitzaren irabazleak 700 euroko bonoa jasoko du saritzat. Antolatzaileek parte-hartzaileen artean banatu dituzte balkoiak apaintzeko erabili behar diren loreak: cyclamenak, pentsamenduak eta anthirrinuamak. Epaimahaiko kideak azaroaren 15etik 30era bitartean pasatuko dira parte-hartzaileen etxetik, konposizioak ikustera.


Troquenor enpresako langileak, greban

Sondikako Troquenor enpresako langileak greban daude irailaren 28tik hona. Enpresa-batzordetik azaldu duten moduan, enpresari enplegua erregulatzeke bosgarren espediente onartu diote, eta, ondorioz, 38 lagun kaleratuko dituzte. Urriaren 19an ibilaldia egin zuten Sindikatik Eusko Jaurlaritzako Bilboko egoitzaraino euren egoera salatzeke. Langileak kaleratu beharrean, enpresa-batzordeak beste proposamen batzuk egin ditu: erretiro aurreratuak edo bajak sustatzea, esate baterako. Troquenor enpresan 165 langile daude gaur egun.



Kalteak, Derioko teilatu batean

Auzokideek jakinarazitakoaren arabera, urrian hegazkin batek kalteak sortu ditu Derioko eraikin bateko teilatuan. Antza denez, teila batzuk askatu egin ziren bortitze-efektuaren eraginez. Hori hegazkinen motorrek sortzen dituzten aire-masa zurgatzaila-fluxu zurrunbilotsua da. Auzokideek gertaeraren berri eman zioten Aenari. Erakunde horretatik adierazi duten bezala, ikerketa bat egingo da, eta aireportuko jarduerak kalteetan eragina izan duela egiaztatzen bada, Aenak ordainduko du konponketa, eta ondoren dagokion aireko konpainiari emango dio faktura.



Larrabetzuar bi atxilotu dituzte

Polizia Nazionalak hainbat gazte atxilotu zituen joan den astean Euskal Herrian, Grande Marlaska epaileak halan aginduta. Gazteei SEGI erakundea berriro osatzen saiatzea leporatu diete. Atxilotuen artean, Endika Perez larrabetzuarra eta Xabi Vidaurre larrabetzuko Aretxabala tabernako langilea daude. Vidaurre Galdakaon atxilotu zuten.




a: Lurdes Etxebarria

Urriaren 3an Nekazaritza Azoka egin zen bigarren aldiz Lezaman. Antolatzaileak pozik azaldu ziren, izan ere ekitaldian 2.500 lagun inguru batu ziren, eta salmentak ere onak izan ziren. Odolosteak dastatzeko aukera egon zen azokaren aurtengo edizioan, eta, antolatzaileek jakinarazitakoaren arabera, 500 pintxo baino gehiago saldu ziren. Lezamara bertaratutakoek Txorierriko txakolina dastatu egin ahal izan zuten. Guztira, 200 edalontzi erosi ziren. Egun ederra izan bazen ere, haizea jaia hondatzeko zorian izan zen. Haize-bolada handi batek puzgarri bat altxatu eta lekuz mugiarazi zuen. Horren ondorioz, emakume batek eta ume bik min hartu zuten. Hirurak Gurutzetako os-


pitalera eraman zituzten, baina, zorionez, ez zuten zauri larrikik izan. Hala ere, ume-etako batek hanka hautsi zuen eta ebakuntza egin behar izan zioten.

Beste alde batetik, hilaren 16an Bertako Produktuen Azoka egin zuten Larrabetzun. Azokak 12. edizioa bete du aurtengoan. Plazan ipini ziren 16 postuetan baserriko produktuak jarri ziren salgai. Horrezaz gainera, dolare bat eraman zuten azokara eta lagun bi ibili ziren sagar-zukua ateratzeko. Umeentzako ekitaldiak ere egon ziren Larrabetzun. Horrela, umeak indabak garautzen ibili ziren bitartean emakume bik baserriaren inguruko istorioak kontatu zizkieten. Azokaren ostean, bertso-poteoa egin zuten Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra eta Julio Soto bertsolariek girotua.



UDA Oskorri

OSTERA



Oskorri

MUNGIA OLALDE ARETOA

Azaroaren 27an, zapatua, 20.00etan. Sarrera: 6€

Azaroaren 27an
















Beroa, hotza

Derion dagoen hotel baten errotuluaren zati bat azaltzen da argazkian. Errotulua hitz-jokoa egiteko balio dit: HOT hitzaren berotasunak eta zero urdinaren hoztasuna kontraste itzela sortzen dute. Gainera, testua hegan dabilela ematen du. Horrek aldizkarietan eta telebistan ikusten ditugun ohiko kartel amerikarren antza du. Argazkiak Derioko Argazki Rallya irabazi zuen iaz, Jatorrizko argazkirik onena kategorian.

Argazkia: Aitor Olabarrieta,
DAT Derioko Argazki Taldea

[illegible]

gustatzen ez zaizkigun lanak taularatu behar ditugu, baina guri ez zaigu hori gertatzen. Pribilegiatuak gara.

JOZUELOA
 Ederribarri 10
 48100 Leizor
 Tel.: 941 499 00 00
info@jozuea.com

LEIZOR SOROKA
 Ederribarri 10
 48100 Leizor
 Tel.: 941 499 00 00
leizor@jozuea.com

JOZUELOA/LEIZOR
 Ederribarri 10
 48100 Leizor
 Tel.: 941 499 00 00
info@jozuea.com

Larri JOZUELOA/LEIZOR
 Ederribarri 10
 48100 Leizor
 Tel.: 941 499 00 00
info@jozuea.com



GURENA


ASISTENTZIA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

ADINERAKO LAGUNTZA
 • ITITZERBTARAKO ARABERAK





"Abestu egin gura dot!"



OIHANE IBARRETXE |
Lady Latotzia

Txorierrin musika munduan dabilzan gazteek Lady Latotzia esaten deutesie. Izen artistiko horren atzean Oihane Ibarretxe sondikoztarra dago. Hogeta bat urteko neskeak argi ditu ideak, eta ames bat be badau: musika munduan leku bat izatea. Egia esateko, talentu faltarik ez dauka.

t/a: Itxaso Marina

Musikea ez da hobby hutsa zuretzat.

Etorkizunean musikatik bizitzea gus-tauko litxakit. Jente gehienak zaletasuna-gaitik egiten dau, baina, barru-barruan, guztiok dogu itxaropena, itxaropen hori txiki-txikia izan arren. Gauzea da zeure bi-dea egin behar dozula, behar gogorra egin eta saiatua izan.

Zein da musikeagaz dozun hartu-emona?

Txikitan gogoratzen dot amak irratia biztuta izaten ebala beti. Baltzen musikea gustaten jat: soula, R&Ba, hip hopa, rapa... Hamalau urte nituala, Cadena perpetua la-

gun batzuen taldean hasi nintzan koroak egiten. Ondoren, jente gehiago ezagutu eta kolaborazioak egin dodaz talde batzu-kaz; Ikatz Lezamako taldeagaz, adibidez. Orain dala hiru urte Infussion taldea osatu genduan eta horren izenak adierazoten dauen moduan, hainbat musika mueta buztartzen genduan geure abestietan. Zoritxarrez, taldea desegin zan abuztuan.

Eta zer dozu orain esku artean?

Lagun bategaz nabil beharrean, eta a-haleginduko naz datorren urterako make-ta bat ateraten. Nik lantzen dodan musi-kea hip hop-soul estilokoa da, hori gusta-ten jatalako eta nire ahotserako oso apro-posa dala uste dodalako. Halanda be, ez dot aterik ixten eta inork konbidauko ba-

nindu beste musika mueta bateko proiektu-ren baten parte hartzera, onartu egingo neuke zalantza barik. Aukerak aprobetxau egin behar diralako. Inportanteena hastea, behar egitea eta jarraitzea da. Niri gehien interesaten jatana abestea da, eta bardin deust zein proiektu dan. Nik abestu egin gura dot!

Maketa horretarako badozuz abesti batzuk, zeren ingurukoak dira?

Amodiozkoak dira, munduaren gane-koak, kezkatzen nauenari buruzkoak... Sentimentuak dodaz hizpide abestietan. Hitzak asmetea ez da erreza. Batzuei be-rez urteten deutsee, baina nik ez dot e-rraztasun hori. Eskerrak laguna ondoan dodala, hitzakaz eta doinuakaz laguntzen



nauena, beharrean jarraitzera animaten nauena...

Beharra lortu, eta zein izango da hurrengo pausua?

Ibili eta ibili, ea suerterik dogun eta kontzerturik ateraten dan. Eta gauza bariak egiten saiatu be bai. Lehen esan doan moduan, zabalik nago edozein proposamenetara. Uste dodalako inportantea dala ez lotzea besoak buztarturik; ilusinoa eta gogoa euki behar dira.

Zelan imajinaten dozu etorkizuna?

Badakit gatxa izango dana mundu honetan lekua topetea. Baina gaur egun lehen ez egozan aukerak doguz: internet, tuenti eta halako bideak. Zeure musikea grabau, internetera igon eta publiko zabalategana ailegau zeintekiz. Beste alde batetik, maketearen kopiak egin eta herrietan doan banatu zeinkez. Bidea pitika-pitika egin behar da, konstantziaz eta behar gogorra eginez.

Zelako abeslaria zara?

Ona. Uste dot ahots ona dodala eta zelan erabili dakidala. Neure kontura ikasi dot dakidan guztia, entseatzen eta entseatzen.

Nondik dator zure izen artistikoa?

Nahiko sur handia daukat. Baina sin poz-pozik nago neure buruagaz, eta bereizgarri hori erabiltea erabagi dot. Horregaitik hartu dot Lady Latotzia izen artistikotzat. Izugarri gustetan jat!

Hartu-emonik badozu Txorierriko beste taldeakaz. Zelan ikusten dozu hemengo musika egoerea?

Talde asko dagoz eta batzuk onak dira. Baina ez dabe aukera nahikorik euren mu-


*“Barru-barruan,
guztiok dogu musikatik
bizi ahal izateko
itxaropena”*

*“Inportantea da besoak
buztarturik ez lotzea;
ilusinoa eta gogoa
euki behar dira”*

sikea jenteari ezagutzera emoteko. Ezer lortu gura badozu, mobidu egin behar dozu; argi dago. Halanda be, uste dot instituzinoek laguntasun handiagoa emon beharko leuskiguela. Gaur egun, badogu lokal bat entseguak egiteko, baina ez da nahikoa. Udalek inplikazio handiagoa euki beharko leukie gugaz, eta aukerak emon. Kontzertu eta jaialdi gehiago antolatu, adibidez.

Aholkuren bat amore ez emoteko?

Taldeak mobidu egin behar dau eta bere bidea egin. Bidetik eretxi askoko jentearaz egingo dau tope: zure musikea gustaten jaken lagunakaz; gustaten ez jakenakaz; zu izorratzearen, talenturik ez dozula esango deusuenakaz... Baina ezinbestekoa da ideak argi eukitea eta jentearen esanak zutan eraginik izaten ez itea. Datorrenari egin behar jako aurre.



Ortu solidarioa

Goilurra gizarteratzeko enpresak proiektu barri bat jarri dau martxan, Larrabetzun. Proiektua gizarte-esklusioko arriskuan dagozan lagunei dago zuzenduta, eta Santi Gerrikagoitiaren negutegietan kokatu dabe.

t/a: Itxaso Marina

Santi Olatxu baserrian bizi da Carmen bere emazteagaz. Gizona orain dala 50 urte ailegau zan Mendatetik Larrabetzura, eta han, 20 urtean ibili zan errotari-laguntzaile. Bizimodua ortutik ateratea erabagi eban ondoren, eta soloan 30 urte emon ditu. Baina behar gogorreko hainbat urte, hilebete eta egunen ostean, nasaitasunez gozetako momentua ailegau jako baserritarrari eta erretiroa uztailen hartu eban.

Santik zortzi negutegi ditu; piperrak, tomateak, indabak, letxugak... landatzeko 3.000 metro karratu. Zer egin horreekaz? "Saharan egiten ebilzan proiektu baten barri euki genduan eta negutegiak bertara agintzea erabagi genduan hasiera baten", azaldu deuskue senar-emazteek. "Baina handik hilebete batzuetara beste eskaintza bat egin euskuen: negutegiak Goilurra enpresari lagatea, han gizarte-esklusioko arriskuan egozan lagunak soloko beharretan trebatzeko. Eta oso ideia polita eta egokia iruditu jakun".

Maiatzean lau atzerritar hasi ziran beharrean Santiren negutegietan: saharar bat, txetxeniar bat, portugaldar bat eta bolikostar bat. Guztiek dabe behar-kontratua eta soloko beharrak ikasten dabilzan bitartean soldata be jasoten dabe. Santi egunero hurbiltzen da negutegietara, barazkiak zelan landatu, hazi eta hartu azaltzera eta ahal dauan guztietan laguntzera. Buruan lehengo kezkak ez

dauan arren, soloko arazotxuek oraindino kezkatzen jarraitzen dabela autortu dau. Nolanahi be, proiektu berezia da larrabetzuarrarentzat, orain dala gitxi arte bere beharra izan danagaz harremanetan segitako aukera emoten deutsalako eta bere lurretan ekoizten jarraitzen dalako.

Iraungite-datarik bakoa

Hasierak ez dira errazak eta kasu honetan be buruhauste bat baino gehiago euki dabez Santik eta Carmenek. "Normala da. Lehenengo aldia da soloagaz harremana dabena eta dana hasiera-hasieratik ikasi behar izan dabe. Baina oso mutil prestuak dira, eta gu gustura gagoz eurakaz". Eta buruhausteak anekdota dibertigarriak bihurtu dira egunak aurrea joan ahala. "Behin Santi ikusi eben lo-



rak kentzen. Hurrengo egunean negutegietara ailegau eta porru guztie lorak, haziak, kendu eutseezala topau genduan. Ai ene!".

Bikotea pozik azaldu da hartutako erabagiagaz. Alde batetik, ogibidea ikas-





“Ogibidea ikasten daben bitartean behar egiteko aukerea emon jake egitasmoan parte hartzen daben lagunei”

ten daben bitartean behar egiteko aukerea emon deutsee lau lagunei; eta bestetik, euren ekarpen txikia egin dabe soloa hutsitu ez daiten. “Negutegi asko dagoz abandonauta eta penea da”.

Goilurra enpresarena iraungite-datarik ez dauan proiektua da. Langileek euren gura arte edo beste behar bat topau arte egon ahalko dira bertan. “Eta batek daki! Baten bat baserritar trebea bada eta animaten bada, erakundeek emoten dabezan laguntzak eskuratu eta bere ustia-tegia jar daike martxan”. Gainera, etorkizunean proiektua handiago egiteko asmoa dau enpresak; hau da, lur gehiago hartu eta negutegietan jente gehiagok behar egin daiela.

Goilurra Ezkerraldeko enpresa da, eta batutako uzta Mercabilbaon eta euren influentzia-zonan saldu dabe. “Beste helburu bat bidezko merkaturatzea bultzatzea da, ekoizlearentzat zein kontsumitzailearentzat onuragarria izango dana”. Proiektua “Pais Vasco, un alma solidaria” golar-doa jaso dau eta saritzat 20.000 euro emon deusie. Dirua proiektuan bertan inbertituko da.

“Santi eredutzat dogu”

Takio Daham Saharakoa da; eta Magomed Kishiev, Txetxeniakoa. Beste hainbeste etorkin bezala, Euskal Herrira etorri ziran aukera baten bila eta Larrabetzun topau dabe. Ez eben soloaren gaineko aurretiko ezaupiderik, baina ikasten joan dira eta harro azaltzen dira euren eskuz landatu eta jaso daben uzta erakusten deusuenen. “Postu bat jarri genduan Larrabetzuko Produktuen azokan eta dana oso ondo urten zan. Pozik gagoz”, txukun esan dabe gaztelaniaz. “Euskera apur bat be bagabilz ikasten”.

Behar gogorra da; halanda be, neurria hartu deusiela azaldu deuskue. “Behar hau euki ezean, langabezian egongo ginatke, beharbada. Hau hobe da, langabezia baino. Gainera, Santik laguntzen deusku eta guk eredutzat dogu”.



- PABLO ALBA JERONIMO - OLIVERIANO IRI - KATIL IRI - MARCELO JULIANA - PABLO ALBA JERONIMO



ETXERAINO



DONOSTIA - IRI - IRI - IRI - IRI

ETXERAINO



Etorkizuna hurbil dugu

Piramideko atea ireki, eta zero eta bat zenbakiek osatutako espiral batek inguratu egin gaitu. Musikak eta argiztapenak ia sinestarazi egin digute espazio-ontzi batean gaudela. Baina, ez; BTEK Teknologiaren Interpretazio-zentroan gaude, Zamudion. Eta bertan teknologia ezagutu, ukitu eta bizi izan dugu.

t: Itxaso Marina / a: BTEK

BTEK Teknologia Parkeko punturik altuenean dago kokatuta. Eraikina piramide bik osatzen dute. Bata beltza da eta 18 metroko altuera du; bestea lurrean sartzen den piramide berdea da. Eraikin deigarria da, bitxia, liraina... Barrualdean dagoena ikustera gonbidatzen duena. Eta ez du huts egiten; kanpoaldea erakargarria bada, askoz erakargarriagoa da barrualdea.

Zeraz eta batez betetako korridoreak lehenengo geldialdia egin dugun gune-raino eraman gaitu: Sarea eta mundu digitala. Han aparatu digitalen berezitasunak ezagutu ditugu eta Interneteko zirrituak azaldu dizkigute. Gainera, gure inguruan dauden beste sare mota batzuk

*“Eraikin deigarria
da, bitxia, liraina...
Kanpoaldea
erakargarria da; eta
barrualdea, askoz
erakargarriagoa”*

ere izan ditugu hizpide. Ukipean-pantailak eta gure eskura egon den guztia ukitu ostean, Berrikuntza kioskoari egin diogu bisita. Teknologia Parkean dabilen ikerketa eta teknologia-enpresen lanari buruzko azalpenei arretaz jarraitu diegu han.


Nolakoa izango da gure etxea etorki-

zunean? Garbigailua sakelako telefonotik kontrolatu ahal izango dugu? Etxerako moduko teknologia-gelan zain izan dugun alegiazko lagun batek etorkizuneko etxeak zelakoak izango diren kontatu digu. Eta guk zientzia-fikzioz zebilela pentsatu dugu. “Zentroan azaltzen den guztia egia da; edo merkatuan dago jadanik edo oso garapen-maila aurreratua du”, esan digu Xabier Díaz BTEK-eko zuzendaria.

Handiak, mundu txikian

Arrapala bat ikusi dugu, eta sabaian punta askotako izar-itxurako esfera argi-dunak daudela, kolorez aldatzen direnak. Arrapatatik jaitsi eta lekua gero eta txikiago egiten joan da: Beste mundu batzuk gelan gaude, zeinetan nanoteknologiak, bioteknologiak eta robotikak euren gune propioa baitute. Ezin izan diogu eutsi eta gela honetara ailegatu bezain laster gure altuera nanometroan neurtu behar izan dugu. Handiak gara mundu txikian! Leiho batetik begiratu eta han zeuden marraz zer ziren asmatzen ibili gara. Ez dugu asmatu eta eskala handitu dugu. Asmatu barik jarraitu dugu... Zer arraio! Ondoren, nanopartikulekin lan egitea oso behar korapilatsua dela konprobatzeko aukera izan dugu: gure eskularruei atxiki zaizkie eta komeriak pasatu ditugu nanopartikulo tresnekin harrapatzeko.

Gure bidetik jarraitu dugu eta robot batek erretratua egin digu. Orrian agertzen den irudiak gure antza du, ez dago zalantzarik. Eta Kixmi izeneko beste robot



12 z gureakien munduko ibarrik onenak Biltzarik bain hurbil saltzen arihararik

12 z gureakien munduko ibarrik onenak Biltzarik bain hurbil saltzen arihararik

SUITE DELUX
MUNDU BILTZARIK BAIN HURBIL SALTZEN ARIHARARIK

Calchinetria
Luzoa
La Biltzarik (B)
Biltzarik munduko
ibarririk onena

Calchinetria
Arborea
Biltzarik munduko
ibarririk onena
Biltzarik onena

Lofana
Kaltzarik-Biltzarik
Biltzarik onena
Biltzarik onena

12 z gureakien munduko ibarrik onenak Biltzarik bain hurbil saltzen arihararik




batek gure pentsamendua asmatzeko gai dela ziurtatu digu. Kostatu zaio, baina lortu du. Bat-batean hormatik atera den zientzialari batek susto ederra eman digu. Ai ama! Irudi holografikoa zen, baina guk benetakoa zela pentsatu dugu. Laguntza eskaini dugu, eta ezin izan diogu ezetz esan: galderak eta galderak egin dizkiogu.

Jolasten denbora luzea eman ostean, hausnarketa egiteko momentua ailegatu da. Goiko kargua dugu enpresa batean eta gure produktueterako lehengaiak non erosi erabaki behar dugu. Hemen han baino merkeagoak saltzen dituzte. Baina hemengo lagunen lan-baldintzak hangoenak baino askoz kaskarragoak dira... Aukera gure esku dago.

Ideiak gure buruan bueltaka dabiltzaila L@tek tailerrera heldu gara. Bertan praktikak egiteko gunea atondu da.

Gizarteari begira


Ekainean inauguratu bazen ere, BTEK Teknologiaren interpretazio-zentroa 2005. urtetik hona itxura hartzen joan den proiektua da. Horren sustatzaile dira Bizkaiko Teknologia Parkea, SPRI, Ikastolen Konfederakundea, Elhuyar Fundazioa eta Tecnalia. Proiektua helburu bi zituela sor-



“Gizarteari dagokio teknologiari buruzko erabakiak hartzea. Informazioa behar du horretarako”

tu zen: alde batetik, teknologia eta zientzia gizarteari hurbiltzea; eta bestetik, zientzia eta teknologia-kultura gazteenengan sustatu eta arlo honetarako bokazio berriak sorraraztea.

BTEK zentroa DBHko ikasleei begira diseinatu zen hasiera batean. Hala ere, zentroa Batxilergo, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleentzat zein publiko orokorarentzat ere apurka-apurka zabaltzea erabaki dute sustatzaileek. “Teknologiaz inguratuta bizi gara, baina gehienetan horren erabilera soilarekin gelditzen gara. Aurrerapen teknologikoei eta zientifikoei badute prozesu bat aurretik; eta ondorioak ere badituzte, txarrak zein onak. Teknologia baliabidea da eta gizarteari dagokio horren inguruko erabakiak



hartzea. Horretarako, informazioa eduki behar du. BTEK-eko eginkizuna gizarteari informazioa helaraztea da”.

Zientzialarien eta teknikarien hizkuntza arrotza ulergarri bihurtu dute BTEK-en, eta nanopartikulei, mikrotxipei eta DNAr buruz hitz egitea ez zaigu hain korapilatsu iruditu. “Azken batean, inportantea ez da zientzia eta teknologiaren hizkuntza sakona ulertzea, baizik eta horien inguruan dauden lanaz, aukeraz eta ondorioz jabetzea”. Eta ikasteko, ukitzea baino gauza hoberik ez dago. Zentroaren barrualdean zehetasunak zaindu dituzte

arretaz, giro erakargarria sortu dute, eta txoko guztiek botoiak sakatu, atetxoak ireki edota pantailak atzamarrez ukitzeko gonbidapena luzatzen diote bisitariari. Zientzia eta teknologia disfrutatu eta bizi egiten direlako BTEK-en.

Aldaketetara egokitu


Baina gaur berria dena zaharra da bihar. Aurrerapenak etengabeak dira zientzia eta teknologia arloan; batzuetan azkarrago lortzen dira, eta beste batzuetan motelago. Nolanahi ere, BTEK horietara egokitu beharko da. “Oso inportantea da

Parkeko enpresekin harreman estua izatea. Punta-puntako teknologia zein den jakiteko, zer datorren eta norantz begira egon behar garen”.

Piramideen barruan 1.000 metro karratu inguru atondu dira erakusketarako. Areto guztiak teknologiarik aurreratuenaz hornitu dira, bisitaria zientzia eta teknologia mundutik eroso ibil dadin. Deigarria ez ezik jasagarria ere bada eraikina. Horrela, bada, piramide beltzaren hegoaldeko aurpegian eguzki-plakak jarri dituzte, eta sistema geotermiko bertikala ere ezarri da, eraikinaren tenperatura kontrolatzeko. Bitxikeria bezala, zentroa zein bertan dagoen guztia iPad edo iPhone baten bitartez kontrola daitekeela aipa dezakegu; munduko edozein txokotatik.

Edonor aho bete hortz uzteko moduko eraikina da BTEK. ArchDaily arkitekturaren gaineko webgunean kultura-eraikinik onentzat jo zuten joan den urtean, eta berri buruzko Ohorezko Aipamena egin zuten Sao Pauloko VIII. Arkitekturaren inguruko Bienalean. Ohorezko Aipamena ere jaso zuen 2009. urteko AR Awards ekitaldian.

“Txoko guztiek atetxoak ireki edota pantailak atzamarrez ukitzeko gonbidapena luzatzen diote bisitariari”



Boduza arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Informazioaren erabilera

Informazioaren erabilera

Plataforma

Araia Zorri agiri...



902 54 08 54



Azaroan, Zamudiora!

Izan be, azaroaren 10etik 14ra bitartean zaindariaren jaiak ospatuko dabez bertan. Aurtengo jaiak arpegi ona ipini deusie krisialdiari eta sanmartinak herritar guztiei zuzendutako ekitaldiz beteta jatorruz. Ezin dozu aukerea galdu.

a: Zamudioko Udala

Txorierriko mortzilarik onenak Zamudion egiten dirala dinoe hangoek, eta batzuk munduko onenak dirala be esatera ausartu egiten dira. Edozelan be, zamudioztarrek halan emongo deutsee hasiera jaiet: mortzila-saboreagaz. Azaroaren 10erako, arratsalderako, Mortzila Saria-erakusketea antolatu dabe frontoian eta Mariano Ruiz Zamudio K.E.ko entrenatzailak txupina bota ostean, mortzila goxo-

goxoak banatuko dabez bertaratutakoan artean. Handik aurrera bost egun eukiko doguz dibersinorako.

Besteak beste, kalejireak, musikea eta dantzak nagusi izango dira Zamudioko bazter guztietan. Bateren batek ondo pasaten ez badau, gura ez dauhalako izango da hori! Umeentzat, esate baterako, puzgarriak ipiniko dira, eta rock ekitaldi bat be egongo da. Jaietako gauak talde honek girotuko dabez: Kop, Vendetta, Drindots, Kaotiko, Ze esatek eta Trikizio. Eta



XXV. Azokea

Azaroak 6, zapatua

- 11:00: Ganadua pisetea.
- 12:00: Abere lehiaketea (emeak).
- 12:30: Perretxiko jana.
- 17:00: Abere lehiaketea (harrak).
- 18:00: Perretxikoak sailkatzea.

Azaroak 7, domeka

- 10:00: Abere eta nekazaritzako produktuen erakusketea.
- 10:00: Limusin abelgorrien eta Zamudioko ganaduaren erakusketea.
- 11:00: Bizkaiko Limusin abelgorrien XVII. Txapelketako enkantea.
- 12:00: Txakolinaren eta gaztaiaren dastaketea.
- 12:00: Txapelketako behi, zezen eta ganadutegi onenaren aukeraketea.
- 13:00: Txapelketako sari eta garaikurren banaketea.
- 13:30: Nekazaritza Lehiaketako sari eta garaikurren banaketea.



1. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 2. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 3. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 4. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 5. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 6. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 7. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 8. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 9. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 10. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean

1. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 2. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 3. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 4. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 5. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 6. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 7. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 8. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 9. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 10. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean

1. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 2. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 3. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 4. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 5. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 6. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 7. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 8. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 9. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean
 10. 2010eko azaroaren 10etik 14ra bitartean

MAGALARTE
TRAVERTINO

**Magalarte
travertino**

VINO DA TAVOLA
DENOMINAZIONE DI ORIGINE CONTROLLATA

75 cl.
11,70 €

TOLDOS
TXORIERRI
TOLDOS E GORRAGA

Leiza indagarazibak
 Barakak
 Egurki-ohitak
 Alakarekin jarraitu

 **TORRENTINO**
 Tel: 94 452 12 58
 Fax: 94 452 01 44
 Gasteizko 10001

CEMAN
CONSTRUCCIONES

César López Cuervo
E-414 497 79 09
Móvil: 916 07 33 0

Calle de la Paz, 10, 2º
76101, portafra, S. Juan
48170. DAVILA-Durango

 *Alfapandemia*
Ana Belén
editorial - publicaciones


Barroilba, 4 bispo Tel. 94 403 68 00 4870 74 511 000 (Bilbao)

Avenida 17 de Agosto
 45 700 MANATEE (FLORIDA)
 TEL - 888.687.2141
 FAX - 888.687.2141
www.guesthouse.com/cr
guesthouse.com/cr@guesthouse.com/cr


HOTEL
de la Ville
de Luxembourg

Information: Fax +352 - 46 46 46 46 2222
4870-0486021 (BLISSIM)
Information: 81-402 68 00
Phone: 81-402 68 01
to mail: Hotel@luxembourg.com
to mail: la.ville@luxembourg.com
visit us online at www.hotel-de-la-ville.com

RESTAURANTE
SAN MARTINETAN TXARRIBODAN
Restaurante
SAN MARTIN
Egunero irenuka
Mendi herriak
Jaunak, hatakoak eta ezkontzak



Sanmartinetako egitaraua

Azaroak 10, eguaztena

- 17:00: Mortzila Saria-erakusketa, frontoian.
- 19:00: Txupina eta pregoia, Mariano Ruiz Zamudio K.E.ko entrenatzai-learen eskutik.
- 19:00: Kartel Txapelketearen irabazleari saria emotea.
- 19:00: Gozokiak.
- 20:30: Mortzilak dastatzea, frontoian.



Azaroak 11, eguna.

San Martin eguna

- 12:00: Mezea.
- 12:30: Kopaua, trikitilariak girotua.
- 16:00: Mus eta briska Txapelketea, Adintsuen Etxean.


Azaroak 12, barikua.

San Martintxu eguna

- 17:00: *Rum rum rock*, eskolan. Euria izan ezker, frontoian.
- 22:00: Fanfarrea.
- 23:00: Kontzertuak: Kop + Vendetta + Drindots.

Azaroak 13, zapatua

- 11:00: Umeentzako jolasak eta puzgarriak, frontoian.
- 11:30: Kalejirea, Bertokoren eskutik.
- 15:00: Herri-bazkaria, frontoian.
- 17:00: Koadrilen arteko erronka, frontoian.
- 20:30: Ruaille buaille folk taldearen emonaldia.
- 23:00: Kontzertuak: Kaotiko + Ze esatek + Trikitio.



Azaroak 14, domeka

- 11:00: Umeentzako puzgarriak.
- 11:30: Kalejireia, txistulariek girotua.
- 12:30: Dantzen agerraldia Hiru bat taldearen eskutik, Eskolan.
- 16:30: Skatearen erakustaldia, frontoian.
- 18:00: Kultur aniztasunaren jaia, Oihan Vegak aurkeztua: Chile lindo + Bi gira.

"Kalejireak, musikea eta dantzeak nagusi izango dira herriko bazter guztietan"

"Azokea euria dala-eta itxi zan bertan behera igaz; ia aurton eguraldia lagun daukagun!"

zapatuan herri-bazkaria egingo da frontoian. Bapo bazkaldu ostean, herriko taldeek indarrak neurtu beharko dabez alkarregaz eta, horretarako, hainbat proba eukiko dabez: lokotxak, txingeak, tron-tzea, zamea, egur pilaketea, giza proba eta soka-tirea. Domekan Kultur aniztasunaren jaia egingo da bigarren aldiz, eta bertan Chile lindo eta Bi gira taldeek hartuko dabe parte. Ekitaldia Oihan Vegak aurkeztuko dau. Amaiera bikaina emongo jake jaiei!

Idi-probak eta azokea

Baina jaien aurreko asteburuan be zer egin eta zertaz gozau egongo da Zamudion. Lagun probazaleak hango alkartearik idi-probak antolatu dauz azaroaren 5era-ko, 6rako eta 8rako. Probak iluntzeko 8:30ean izango dira, karrajuan. Horrezaz ganera, Zamudioko Azokea egingo da azaroaren 6an eta 7an. Euri zaparrada handien eraginez bertan behera itxi zan azokea igaz; ia aurton eguraldia lagun daukagun! Hilaren 6an, zapatuan, egongo diran ekintzen artean perretxiko jana da aita-tzekoa. Pintxoak euro baten salduko dira eta batzen dan dirua Gure señaek Derioko alkarteari emongo deutsie.

Azokearen egun nagusia domeka izango da. Guztira 90 postu jarriko dira: ogia, pastela, txarrikoa, txakolina, frutea... ekoizleek hainbat produktu eroango dabez Zamudiora. Era berean, Bizkaiko Limusin Abelgorrien XVII. Txapelketea egingo da azokearen barruan.




Garmendia ardoak

Financ. joko, 17,20€
COMPROB. 17€1
Telo./Financ. 194,40€ - 100,40€

OBRAS Y REFORMAS
C/ P. GALARRAGA, 100 48100 BILBO 945 10 000

Garmendia

Proyectores, Instalaciones,
MATERIALES DE CONSTRUCCION
Instalaciones de calefaccion, Planchas
de 100 cm anchura
C/ P. GALARRAGA, 100 48100 BILBO
Tel. 945 10 000



GUCDAN
servicio deportivo, sala
de entrenamiento, instalaciones, 1,75 g/m²
-ESTRUCTURA DE HIERRO PAV. DE HIERRO-

ZAMUDIOKO LOCAL RECONSTRUCCION
Tel. 94 50 70 00 Fax. 94 50 70 00

ENTREGA GRUPO DENDI

Ruben

Colaborador Entregas Plana, 1 Telo 91 54 71 00
Garmendia (Bilbao)

ICONETZ KLINIKA

Iconetza

Centro de atención al paciente
CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN
ECONOMÍA

En colaboración con el Ayuntamiento de Zamudio
Telo. 94 50 70 00 Fax. 94 50 70 00



OITIKA IKUSLAN

Atención al cliente, 1,75 g/m²
ZAMUDIO
Tel. 94 50 70 00

Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



Jaietan be,
euskaraz jolgi hadi!
Zamudioko herria



zamudioan
euskerari
habea egi

LOKAL
Café Fernan
Zamudio

Oraineko lokala, el
gurea. ZABOZTEKO
LOKALAK: 94 487 00 79

Erreala Festival

Festival
Flower Rockin' and
Freakout

Antolatzailea: Gurea, el
gurea. ZABOZTEKO
LOKALAK: 94 487 00 79



JÜSTERRAK
TABERNA

Amatzen Plaza, 27-28-29-30-31-32-33-34

10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79

AMATZEN PLAZA, 27-28-29-30-31-32-33-34
10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79

AMATZEN PLAZA, 27-28-29-30-31-32-33-34
10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79

AMATZEN PLAZA, 27-28-29-30-31-32-33-34
10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79



Erreala Festival
IRIJO BARCENA
Izardizko eraketa



AMATZEN PLAZA, 27-28-29-30-31-32-33-34
10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79

luz zamudio

AMATZEN PLAZA, 27-28-29-30-31-32-33-34
10:00-14:00: 94 487 00 79
15:00-18:00: 94 487 00 79

Mikel Zarate Haur-literaturako

II. Saria martxan da



a: Jon Rozadilla

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak Mikel Zarate Haur-literaturako Saria antolatu dute bigarren aldiz. Sariak helburu nagusi bi ditu: alde batetik, haurrentzako irakurgai berriak sortzea eta, bestetik, idazleen lana bultzatzea. Elkar argitaletxeak ipuin irabazlea argitaratuko du eta ipuin horren idazleak 3.000 euroko saria jasoko du.

Lanek baldintza batzuk bete behar dituzte: Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (6tik 12 urte bitartekoentzat) sortutakoak, jatorrizkoak eta beste inondik moldatu gabeak izatea. Era berean, gutxienez 10 orrialde eta gehienez 50 orrialde izan behar dituzte. Ipuinak Lezamako Udaletxera bidali behar dira 2011ko martxoaren 1a baino lehen. Euskara batuaz edo bizkaieraz aurkezteko aukera dago.

Hiru lagun hauek osatutako epaimahaiak erabakiko du zein izango den irabazlea: Leire Bilbao, Xabier Mendiguren eta Miren Agur Meabe. Epaimahaiak 2011ko apirilaren 15a baino lehen jakinaraziko du zein den bere erabakia. Epaileren iritziz, gutxieneko kalitatea duen lanik ez balego, ez litzateke saririk emango.

Iaz, 19 lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta antolatzaileak pozik agertu ziren. Alaitz Etxeandia Lezamako alkateak esan zuen "gustura" zeudela sari honek izandako "harrerarekin". Era berean, Elkar argitaletxearen iritziz, nabarmentzeko modukoa zen lehiaketak halako oihartzun handia izatea Lezama bezalako herri txiki batean, are gehiago lehenengo edizioa izan zela kontuan izanik.

Asier Mendoza, iazko irabazlea


Asier Mendoza zarauztarrak idatzita-

ko *Beste gu* liburuak irabazi zuen lehiaketaren aurreneko edizioa. Liburuak udazken honetan bertan jarri dute salgai. Egilearen esanetan, "aurkezteagatik" aurkeztu zen lehiaketara, eta "ustekabeen" harripatu zuen irabazle hautatzeak. "Saria polita da eta dirua ondo dago, baina liburua argitaratzea hori baino askoz garrantzitsuagoa da". Izan ere, *Beste gu* Mendozari plazaratu dioten lehenengo liburua da. Gazteak kamerari egiten du lan, eta horregatik "idazle zaletzat" jotzen du bere burua. Dena dela, argi du bigarren edizioa ere aurkeztuko dela.

Mikel Zarate abade lezamarra duela 31 urte hil zen, baina oraindik ere badugu gogoan euskal kulturaren alde egin zuen lan itzela. "Mikel Zaratek lan mardula burutu zuen bai idazle gisa eta baita euskaltzale gisa ere. Eta hain zuzen ere, horiek dira Lezamako Udalak literatur sari honen bidez uztartu nahi dituen alderdi biak: idazketa eta euskara", esan zuen Alaitz Etxeandiak iaz.

Lanak bidaltzeko:

Lezamako Udala – Mikel Zarate Saria
Aretxalde, 1
48196 Lezama



"Lehengo hondakinen hondakina

ALBERTO VILLACIAN | Derioko Bestorrene baserriko semea

Baserria bota ebenetik etxebizitza asko eregi diran arren, XIX. mendeko baserri hau derioztar guztion gogoan dago, eta batez be familiarenean. Albertori egindako alkarrizketa honen bitartez, txorierritar guztioi aurkeztu gura deutsuegu Derioren eta lehengo Euskal Herriaren historiaren zatitxo bat beragaz eroan eban Bestorrene baserria.

t: Bestorrene(*) / a: B. eta Andres Baños

Noz sortu zan baserria?

Azken eraikuntza 1900. urtekoa da, baina aurretik beste baserri bat egoan. Guk plaka bat euki genduan etxean, 1900. urtekoa zala esaten ebana. Dirudie-nez etxea eregiarazo ebana Juan Ramón Goiri Vidaurrezaga izan zan, 1847. urtean Derion jaio ei zana. Halan be, behin baino gehiagotan berreregin behar izan zan, suak zirala eta. Juan Ramón Goiriren aiti-ta Gatican jaio zan XVIII. mendearen amaiera aldean. Beste adar guztien sus-traiak Deriokoak dira.

Zein da baserriaren jatorrizko i-zena?

Baserriak bere momentuan beste izen bat euki eban, Vista Ona, eta handik dator Bestorrene; horixe dala izenaren esanahia esan izan da beti gurean. Eskri-turetan beste idazkera bi bere ikusi do-daz, Cestaona eta Mestorrena. Baina ba-dakizu, lehen notarioetan ez ekien euske-rarik, eta baserriarrek euskeraz egiten eben... seguruenik txarto ulertuak izango dira.

Nor ezagutu zenduan baserrian lehenengo?

Nik familiaren genealogia guztia dau-kat aterata XVI. mendera arte. Gaur egun dokumentuak eskaneauta dagoz, eta



nahiko atzera joateko aukerea dago. Nik Jesus Goiri aititaren aita, Elias Goiri, eza-gutu neban lehenengo Bestorrenen. 1897. urtean jaioa zan. Jesus Goiri amaren aita zan, aitaren aldetik jatorriko baserria amari.

Baserria egoan lekuko kaleek, gaur egun, orduko toponimoen izenak daukiez. Gogoratzen zara baserriko solo izenakaz?

Solo batzukaz akordetan naz; bere garaian danak bat ziran, baina bideak egi-ten hasi ziranean zatitu egin ziran. Mahas-

"Azken eraikuntza 1900. urtekoa da, baina aurretik beste baserri bat egoan"

"Bestorrene Vista Ona izenetik dator; baserriak izen hori euki eban lehen"

tia esaten geuntsan parte bateri, nik eza-gutu aurretik mahats landarak egon ei ziralako bertan. Errekamune zan beste bat, Errekalde egoitzaren eta futbol-zelai-ra doan bide barriaren artean egoan. Munatxu bat zan, eta oraindino be bertan dago nik txikitan landatu neban pinua. Eskrituretan Guimera Echalde be ikusi dot, nik beti Kaskimera entzun dot etxe-an, ez dakit zergaitik. Mungiko bidearen azpian, lehen saskibaloiko pistak egozan lekuaren ondoan egoan. Eskola zaharrak egiteko lurak be aititek emon ebazan,



k be ez dagoz Derion"



lehengo hiltegiaren aurrean. Loiuko amamak lehengo kontuak irakatsi eustazan, solo eta belardi izen guztiak, baina ez naz danakaz gogoratzen.

Bestorreneko aitita eta amama zein zereginetan ibiltzen ziran?

Aitita tratantea zan, ganadua Santander inguruan erosi eta Mungian, Bermeon... saltzen eban. Amamak gaztaia egiten eban. Neguan artzainak etorten ziran Karrantza aldetik, eta ardiak baserrian gordetan ebezan. Era bitako gaztaia egiten eban amamak, batetik, ardi-esnea eta behi-esnea nahastuta egiten zana, eta, bestetik, Burgosko gaztaia deitzen zana, legarra eta behi esneagaz egiten zana. Jentea baserrira etorten zan erosten. Solo txiker bat baegoan, baina ez askorik. Lehenago bai, garitzak eta fruta-arbolak egozan; aurreko belaunaldien goldeak, bostortzak, galbaheak... ikusi izan dodaz etxean.

Zein urtetan bota eben baserria?

2003. urtean izan zan. Penaren penaz

negar egin genduan danok.

Nondik hartu dozu euskerearenganako zaletasuna?

Euskeraren eta euskal baserriaren gaineko interesa amamagandik jator. Izan be, hagaz ordu luzeak emoten nebazan baserriaren gauza askori buruz berbetan ... beragandik lehengo kontu asko ikasi dot.

Zer deritxazu baserriak desagertuz doazan Txorierri barri honeri?

Negargarri, berba baten. Lehengoan anaia aireportura eroan neban kotxez, eta bidean ikusi genduan lehengo baserriak gehienak botata dagozala: Idorsolo, Landabeheko... ez dago baserriak. Lehengo Deriok eta oraingoak ez daukie zerikusirik. Nik lehengo Derion hondakinak ikusi ahal izan dodaz gazte denporan, baina orain hondakinen hondakinak bere ez dagoz.

(*) Tximintx: Derioko euskera alkarteak baserriaren izen hau hartu dau izengoitizat, artikulua sinatzeko

GAMINIZ
JATETXEA

Telefono: 944 36 1000
Email: gaminiz@gaminiz.com

Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

www.gaminiz.com

R-P-A
MAXIMIZAS INFORMATICAS

INFORMACIONAL INFORMATICA
SANTO MARI NIMINIA
PUNTO TECNICO

Avda. Pasaia 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

Avda. Pasaia 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

SANTI MARI
SANTO MARI NIMINIA
PUNTO TECNICO

Avda. Pasaia 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

MARMOLADINIA
GOYO

Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

KAFETEIA
IAZI
JATETXEA

Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

Comunicar
Charakteria
IMAZ

Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak
2012 Encomend 2012 Pasaia Informazioak

"Afizinoa bizirik dago, eta guk bizirik eutsiko deutsagu"

t: Itxaso Marina/ a: Zamudioko Udala

Ez dakigu kuriosidadea dan, baina baserritarrak zarie kide guztiak.

Bai. Probak iluntzeko 8,30etan egiten doguz, baserriko beharretara egokitu behar izan dogulako proben ordutegia.

Alkartea sortu orduko be baegoan afizinoa herrian?

Handia; baina dirurik ez. Teknologia Parkea diru-laguntzak emoten hasi zan: hizkuntzetarako, ekimenetarako... eta geuri be emon euskuen diru partida bat. Horregaz hasi ginan idi probak antolatzen orain dala 20 urte. Sarrerea doakoa zan –eta gaur egun be halan da–, eta sari handiak emoten genduzan. Orain be sari handiak emoten segiduten dogu. Zamudioko idi probek entzute handia hartu eben eta orain be badaukie.

LAGUN PROBAZALEAK ZAMUDIOKO ALKARTEA

Entzute handikoak dira Zamudioko idi probak, eta Lagun Probazaleak alkarreak dauka meritua horretan. 20 lagunek eratu eben alkarrea 1990. urtean. Bide luzea egin dau harrezkero, eta Txetxu Aurrekoetxeak horren barri emon deusku.

Baina Parkeak itxi egin eutsan idi probak diruz laguntzeari.

Horren ondorioz, urte bi emon genduzan probarik antolatu barik: 2002tik 2004ra bitartean. Udalera jo genduan eta alkarrearen jardueria aurrekontuen barruan sartu eben. Eskerrak! Osterantzean, ez ginan idi probak egiteko kapaz izango. Gauza asko dira: bederatzi sari, trofeoak,

mantak, txapelak, lokala... Dirutza handia da.

Aurreko urteetako moduan, idi probak izango doguz sanmartinetan. Halanda be, badira urte bi Pazko jaietan ez dirala antolatzen. Zergaitik?

Pazko jaietara idi barriak ekarri izan doguz, baina azken urte bietan gure jaiak eta beste herri batzuetakoak batera egin dira eta ezin izan doguz ez egunak, ez ordutegiak adostu. Sanmartinetara, barriz, pisu libreko idiak ekarten doguz. Halakoek jente gehiago ekarten dabe.

Zer dago ikuskizunaren atzean?

Oso behar handia. Beste herrietako probetara joaten gara idien ugazabakaz hartu-emonetan jartera. Foru Aldundian eta Herri Kirolen Federazioan eskatu behar doguz erakunde baktaxari jagokozan baimenak. Eta inskripzioa ixten danean, datu guztiak batu, eta eskuma dauen erakundeari jakinarazo behar de-

"Antidopin kontrola egiten jake idiei"



"Orain 2.500 kiloko harria erabilten dogu probetan, batzuk kexau egin ziralako"

tsaguz, egiaztatu daie dana zuzena eta egokia ete dan. Horrezaz ganera, karrajua atondu egin behar da proba egunerako, eta probetan bertan be badoguz hainbat behar.

Kinielek giro itzela sortzen dabela entzun dogu.

Portzentaje handiak emoten doguzan fama dogu. Egia esateko, jentek trabes egiten dau. Batzuek ohiturea eukiten dabe halako gauzetan.

Eta idiei antidopin kontrola egiten jakela.

Probea amaitzen danean, Foru Aldundiko albaitari batek buztarrietako bat aukeratu eta kontrola egiten deutso. Kafea edo beste substantziaren bat emon jakola topaten badau, deskalifikatu egiten dau.

Hasiera baten hiru tonako harria erabiltzen zenduen; eta gaur egun, 2.500 kilokoa. Zergaitik?

Gerra ostean, hiru tonako harriak erabiltzen ziran idi probetan, eta guk eutsi egin gura izan geuntsan ohitura horri. Baina ugazaba batzuk kexau egin ziran eta 2.500 kilokoa hasi behar izan gen-



duan erabiltzen.

Eta zelan portatzen dira ikusleak?

Lagun asko batzen dira karrajuan. Bai txorierritarrak eta baita inguruko herrieta-koak be. Gazteak zein helduak. Limusina Txapelketea eta idi probak batera izaten dira, eta batzuek aprobetxaten dabe, ganadu erakusketea ikusi ostean, idi-pro-

betara etorteko. Gu sano pozik gagoz.

Beraz, sasoi onean dagoz idi probak.

Bai, eta etorkizun ona eukiko dabe. Afizinoa badago eta ez dogu hori galdu behar. Guk eusten segiduko dogu lehen-go usadioari, eta hurrengo belaunaldien artean zabaltzen.



Uzta txikiagoa, baina goxo-goxoa

Irailean eta urrian bor-bor dabilz Txorierriko baserriak, mahatsak dabezanak, behintzat. Izan be, mahatsak batzeko garaia da eta laster aurtengo uztako ardaoak dastatzeko aukerea izango dogu. Antxon Txapartegi "Bizkaiko Txakolina" Jatorrizko Deituraren Kontseju Arautzaileko idazkari teknikoa da, eta bere esanetan, 2010eko txakolina "goxoa" izango da.



t: Gaizka Eguskiza / a: Ioritz Larrabeiti

"Bizkaiko Txakolina" Jatorrizko Deituraren Kontseju Arautzailea jatorrizko deitura kudeatu eta sustaten dauan erakundea da. Eta ganera, Bizkaian ekoizten dan txakolinaren kalidadea bermatu egiten dau. Antxon Txapartegiren berbetan, "oso eguraldi ona euki dogu urte osoan; baina ekaina hilebete gogorra izan da, itzelezko euri-zaparradak bota ditualako". "Mahastiak hilebete horretan loratu egiten dira, eta aurtun euriak polena kendu deutse lorei. Ondorioz, lorea ez da frutu bihurtu; eta ondorioz, mahats gitxiago egon da mordetan. Dana dala, abuztua eta iraila oso hilebete onak izan dira, eta mahatsak ederto heldu dira. Beraz, ustiapenek igaz baino gitxiago emon arren,

2009	Txorierri	Bizkaia
Upeltegiak	14	56
Ekoizleak	71	285
Mahastien lursaila (ha)	55	334
Txakolin-kopurua (l)	280.000	1,24 milioi

mahatsen kalidadea oso ona izango da".

Txorierri da Bizkaiko txakolinaren sorlekuetako bat, eta bertan hainbat ekoizle doguz, batez be Lezaman eta Larrabeitzun. "Ohitura handia badago be, ustiapenak txikiak dira, eta batzuek arazoak euki dabez garai barrietara egokitzeko: base-

rritar batzuk nagusiak dira eta ez dabe ordezkorik izan; ganera, gaur egun sektorea hazi eta profesionalizau egin da, eta horrek, besteak beste, ustiatzeko era barria eta produktuaren kalidadearen bermea eskatzen ditu". Halanda be, gure txakolin-ekoizle batzuk aurrera pausuak emoten dabilz. Esate baterako, Txorierriko ekoizleen alkattea sortu gura dabe.

Bizkaiko eskualdeetan ekoizten dan txakolina antzekoa da, eguraldia be antzekoa dalako. "Askotan eguraldia baino, askoz garrantzitsuagoa da lursail bako txaren baldintzak: mahastien orientazioa, luraren drainatzea...". Beraz, Txorierriko txakolina Bizkaiko beste txakolinaren antzekoa da, baina gure ardaoak badau berezitasun bat. "Berton, batez be mune mahatsa edo *folle-blanche* motakoa erabiltzen dabe. Mahats hori ez da hainbeste erabiltzen beste eskualdeetan; horrexegaitik da berezia Txorierriko txakolina. Ganera, kontsumitzaile txorierritarrek sabore hori be eskatzen dabe, eta ekoizleek eskaerari erantzuna emoten deutesie. Txakolin horreek alkohol gitxiago dabe eta garratzagoak dira".


Jatorriak baino, markak

Azken bolada honetan txakolinaren kalidadeak gora egin dau Bizkai osoan, eta horretarako behar gogorra egin dabe, bai ekoizleek, bai Jatorrizko Deituraren Kontseju Arautzaileak. Baina batek baino gehiagok jarraitzen dau pentsaten ardoarik onena Bakion eta Getarian egiten dala. "Herri bi horreetan primeran lantzen dabe txakolina, eta euren izenak txakolinari dagoz lotuta, nahitaez. Halanda be, ohiko kontsumitzaileek txakolinaren jatorria kontuan hartzeaz ganera markak be eskatzen dabez. Errioxako ardaoakaz bardin gertatzen da".

Txakolinaren inguruan dagoan beste



*"Txorierriko
txakolinak alkohol
gitxiago dau eta
garratzagoa da"*

[illegible]

GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOTIOIAK ERAIKUNTZAK

Erabilgarritasunak
 Merkataritza-irabazak
 Garaiolak
 Informazioak eta abarrik
 Edukiak handiak
 Gidatutako erakundeak

Tel.: 94 455 50 19

Garaiola, S.A., C/1. (Bilbao)
 1. (Bilbao) (Bilbao)



Gure Txori Boisen

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on!
–Non da Txori?
–Boiseko unibertsitatera joan dok.
–Zer dinostak Zipiri?
–Bai, txoriak eskuetatik alde egin deusku.
–Kaiola ezer ez Txori barik Zipiri.
–BSUra joan da hurrean, Boise State University-ra.
–Ez ahal da izango andre gaztearen txorakeria!
–Txorakeriarik ez txorikeriarik ez gure Txorik.
–Danean dala, egunotan ez dot bes-

terik entzuten opor osteko sindromea baino Zipiri.

–Sindromea dinostazu Luki? Sindromea kentzeko **emongo neuskie asunen plegasiñoa ohian ganian berantza adi imiñite!** Baietz kendu sindrome hori.

–Nik Zipiri Txori sindromea daukat edo **sindrolodia**. Nogaz jardungo dot akeita orduko eztabaidan? Nor zirikatuko dot? Nogandik entzungo doguz halako sententzia lapidarioak? Txorirentzat eta niretzat izan da zure kafetegia Zipiri, bion destinoak gurutzatzen diran bide-gurutzea, istorioak trukatzten diran bizitzako geltokia. Orain, baina, uda aurreko habian txoririk ez.

–Zagoz nasai Luki! Azken baten txori bakotxak daki bere habiarako bidea.

–Bai! Ganera Zipiri, libre dan txoriak errez egiten dau hegaz.

–Ohituko zan, behin honezkero, kafe amerikanoa hartzen, kafe-**kankarrukadea** edaten.


–Emailez idatzi beharko deusagu Zipiri, ezagunak be badaukaguz Idahon-eta.

–Bai Luki. Aurten, hurrean, txorieritar piloa izan da euskal jaialdian: Oihana Astobietta, Gabriel Etxebarria, Joseba Etxebarria eta beste asko.

–Ea *Welcome to Idaho* sloganak ez dauen liluratzen gure Txori.

–Hago patxadaz Luki, herriminak ekarriko jok.


–Ea halan dan! Edozelan be, txori guztiak ez dozak errexioñolak, baina gure Txori badok!



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



94 452 34 47
www.aikorra.com




T. 94 452 34 47
www.aikorra.com

Oferta especial GOLF GASTRONOMICO
Reserva: 1 hora de golf en el campo, un plato de la carta de la cocina y un green fee para competir en el campo.

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zenbat lagun ibili
ziren Zamudioko
Koadrilen Egunean?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
Euskal Herriko Liga
Irabazlea:
Ioritz Larrabeiti



%

5

eko

DESKONTUA

Azaroan, "Danerik Paraje" txartelekin ordainduz gero

* Atzeraturako ordainketetara zale deskontua aplikatuko

GADAI GASOLINDEGIAN %2KO DESKONTUA.



Derioa Zertifikatua Merkataritza
Plazaren 10. aldea 10.01

Danerik paraje!

Asociación Promotora de
Comercio y Servicios de Derio



Derio

Irakiten hasten danean, arrosa gehituko dogu eta su bizian eukiko dogu bost minutuan. Ondoren, beste bost minutu su eztian. Eltzeari estalgia jarri eta beste 15 minutu izango dogu egosten.



–*Patziku Txerren*, Antero Apaolaza
–*Euskara galdatan: (aide andiok bidaldu deustae)*, Txema Arinas
–*Haragiaren gauak eta egunak*, Joan Mari Irigoien
–*Amesgaiztoa: “Egunkaria ausziko” epaiketaren kronika*, Pello Urzelai
–*Konpromisoa*, Serquey Dovlátov

- Manolitoren sekretua*, Elvira Lindo
- Kanpoko* *naiz, eta zer?*, Seve Calleja Perez
- Iraganaren pisua*, Iñigo Ibarburen

- Txanpirrin pintxona: haur kantak, Imanol Urbietta
- Artzainak kantuz, Batzuk
- Eskuz lurrari, Pello Ramirez
- Euskal Herriko lur maitea, Batzuk
- Lovin' gaztea, Bilduma

Sudokua

6				5		4		
	3							
4			9			8	5	3
		9			3			
			4	1				
	2	3	5		8		1	
8						3	9	1
						6		
							8	5

[illegible]

Azokak

Sondika

- > Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Azoka. Azaroaren 14an, 10:00etan.

Erakusketak

Sondika

- > Roberto Zarrabeitiaren argazkiak. Azaroaren 2tik 30era, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > "Derechos" Javier Fernandez argazkiak. Azaroaren 3tik 19ra, kiroldegian.

Ikastaroak eta tailerrak

Zamudio

- > Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa. Izena ematea: azaroaren 16ra arte.

Irteerak

Sondika

- > Peñalba-Artziniega. Azaroaren 21ean, 9:15ean, eskolako aparkalekuan. Izena ematea: azaroaren 18ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Barazar-Urkiola. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, 12:30ean, San Martin ermitan.

Lezama

- > Euskararen Eguna. Azaroaren 27an: antzerkia, jolasak, bertsoak...

Lehiaketak

Sondika

- > Gabonetako postalen Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 10era arte, liburutegian.

Larrabetzu

- > Kontakizun laburren Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 12a baino lehen. Gabonetako postalen Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 15etik 19ra arte, liburutegian.

Musika

Derio

- > Juan Crisóstomo de Arriagaren lana, Impromptu taldearen eskutik. Azaroaren 19n, 20:30ean, Gurea Aretoan.
- > Santa Cecilia. Azaroaren 20an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Tailerrak

Zamudio

- > Panpin mugikorak. Azaroaren 20an, 11:30ean, liburutegian.

Bestelakoak

Derio


- > Tokiko Agenda 21. Azaroaren 24an, 19:30ean, Larrabari baserrian. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Ipuin ilunak, gazte zein helduentzat. Azaroaren 19an, 20:00etan, liburutegian.

Larrabetzu

- > Gabonetako programan izena ematea: azaroaren 22tik 26ra arte, liburutegian.



**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu berkeba alorretan hegazkin-motor
magetromaguetan, eta alorreko beste CO₂ gutxiago erabiltzeko dutenak daramatzu
erabilerak. Beraz, ingurumenaren gaineko eragina txikiagoa da. Gure alorreko
hegazkinak erabiltzeko erabiltzen diren ITP hegazkinak, ingurumenaren alorreko Taldean
Integratua jaxo duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa da.
Ingurumenaren eraginarekin eragindako erabilerak, berriz, gure enpresa
hegazkinak erabiltzen dituzte.



HONDA

ECHO



HS
EQUIPMENT

HUSTLER



DISSEKI

agrojardín *Astikene*

Astikene Industria Igunea

Berezi, 23 - C. Binka

Tel: 94 454 06 52 - 688 68 53 39

Fax: 94 454 06 53

48160, IBERO - Bizkaia

Nekazaritza eta lorezaintzarako tresneria saldu eta konpontzen dugu



EGON PREST NEGURAKO



Hemen baino ez duzu aurkituko

280 eurotik aurrera

Ordezko katea eta karraka, barne

astikene@agrojardinastikene.com - www.agrojardinastikene.com